



# IPARRALDEA BERTAN 2023

22. EDIZIOA

Martxoak 7 • 14 • 21

**Martxoak 7**

Asteartea  
19:00etan

# Julen Achiary eta Maddi Oihenart



**Julen Achiary**ren musikak bere hartzaroan jasotako Euskal Herriko basa ahaideen kantuen tradizioa eta ondoren egin dituen bidaietan topatutako munduko kultura ezberdinen ekarpenak uztartzen ditu. Bere aldetik, **Maddi Oihenart**ek Zuberoa aldean biziraun den mendiko artzainen kantu-tradizioaren ezaguera sakona dauka, haien moduan *a capella* abestuz eta naturan errotutako gaiak jorratuz, enfasia betiere emozioan jarriz. Biak elkartu dira euskal kultura herrikoiairen legatu ederrenetariko bat eskaintzeko gualdi hunkigarri batetan.



## **Musikariak:**

Julen Achiary,  
Maddi Oihenart

**Martxoak 14**

Asteartea  
19:00etan

# Lurbinttoko ohoinak


**Adur Larrea** marrazkilariak Lapurdin XVIII. mendean gertatutako pasarte historiko bat ezagutarazten du 2022an Elkarrek argitaratu duen *Lurbinttoko ohoinak* komikian. Liburuak 1795 urtean kokatzen gaitu: Konbentzio Gerla amaitu ondoren, Ezpeleta, Itsasu eta Kanbo inguruetako soldadu ohiak deportatu eta exiliatu ohi batzuekin elkartzen dira eta gerlan bereganatutako esperientziaz eta armez baliatzen dira gudara igorri zituztenak jazartzeko. Saio honetan Adur Larreak bere sortze prozesuan sakonduko du, dokumentazio idatzi eta grafikoan eta komikian kontatzen den kokapen historikoan murgilduz.



**Idazle eta marrazkilaria:** Adur Larrea

# Martxoak 21

Asteartea  
19:00etan



## Bañolet

Maia Iribarne Olhagaraik eta Paxkal Irigoyen Etxeberri idatzi eta zuzendutako *Bañolet* filmaren proiektzioa. *Bañolet* Garazi eskualdeko biztanleekin garatutako euskarazko film proiektu partehartzailea da. Eiheralarreko herrian grabatu zen 2021eko udan, herritarrak aktore jokoan harraraziz. Filmak kontestu geopolitiko berezi batean eraiki den asmatutako herri bat aurkezten digu, populu zapalduak berriki berkonkistatu duten lurralde batean kokaturik. Pelikulak haurtzaroko begirada oinarri gisa hartzen du, hauen gogoetak eta jokoak erreferentetzat hartuz.

Maia Iribarne Olhagarai eta Paxkal Irigoyen Etxeberri gurekin izango dira *Bañolet* filma aurkezten. Luzemetraiaren proiektzioaren ondoren solasaldia eta jarraian kontzertu txiki bat eskainiko dizkigute, filmarako biok konposatu eta grabatu duten musika originala zuzenean interpretatuz. Beraiekin **Beñat Iturrioz Perez** izango da moderatzaile rolean, Hernaniko zinemagilea eta 2017an sortutako Bira Produktzioak kooperatibaren kidea. **Idazle, zinema-zuzendari eta musikariak:** Maia Iribarne Olhagarai, Paxkal Irigoyen Etxeberri **Zinemagilea:** Beñat Iturrioz Perez

**KOLDO  
MITXELENA  
KULTURUNEA**



Urdaneta kalea 9  
20006 Donostia  
Tel.: 943 112 893  
kmk.gipuzkoa.eus  
programazioa@gipuzkoa.eus

 **KMK**  
zuzenean>  
Ekitaldia zuzenean jarraitu

 **eke icb**  
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE

D-141-2023

Diseñua: **Concetta Probanza**